

ZIZPA inaugurazioa: hitzartzea

Hasteko, egunon guztieri eta milesker etortzeagatik, plazer handiarekin erakusten dizuegu, Baionak merezi duen Zizpa gaztetxea !

Gaur ametsa errealitate bilakatzen da, 8 urte pasa dira gazte talde batek, xumetasunez Baionako gazte asanblada sortu zuela. 8 urtetan, Baionari bizi gehiago ematen ahalegindu gira, beti ere, gazteak, Baionako bizitza sozial eta kulturalen aktore izatera bultzatuz.

Egin ditugu, musika estilo ezberdineko kontzertu ugari, kirol txapelketa herrikoiak, euskal kultura indartzeko ekimenak, tartean bertso afariak edota herri kirolak, baita ere hitzaldi-eztabaidak, ikus-entzunezkoen proiektzioak, ihauteriak, haurrentzako jokoak eta ezin ahantzi ere, Baionako besta alternatiboen plantan ezartzea.

Baionako gazteri zabala hunki nahi izan dugu beraz eta baita lortu ere, otsailaren 1etik goiti proposatuko ditugun 11 atelier ezberdinak dira erakusle.

Baionako Gazte Asanblada, Baionako gazte ezberdinez osaturiko talde antolatua da , gazte kritiko gisa, falta ditugun eremu ezberdinak sortu, bultzatu edota garatzeko helburuarekin. Zizpa gaztetxea, asanbladaren tresna angusia izango da baina gure proiektua ez da lau murru hauen artean geldituko, Baiona guztira hedatzeko egitasmoa baita. Gaztetxea ukaiteak adibidez, ez du baldintzatuko Baionako bestetan dugun dinamika, patxa plazan sortu dugun gune alternatiboa mantendu eta garatzen segituko dugu.

Gure proiektua ez da isolatua, erran daiteke gainera Euskal Herri guztian diren gazte asanblada eta gaztetxeen baitan sartzen den egitasmoa dela.

Gure gaztetxea idekitzen dugun egun huntan, gure sustengua erakutsi nahi dugu, Donostiako Kortxoenea gatetxeari, Oztibarreko Bota gaztetxeari, Tolosako Ezpala gaztetxetik kanporatuak izan diren gazte asanbladari, Hendaian gaztetxea aldarrikatzen duen Hendaiz gazte asanbladari, kanporatua izateko arriskuan den Lasarteko Elebeltz gune autogestionatuari eta baita gaztetxe bat lortzearen perspektiban diren gazte asanblada orori ere. Zoriondu nahi ginituzke bestalde, Iruñako gaztetxeko kideak, gure gisara, herriko etxearekin adosturik gaztetxe bat lortu baitute! Agur berezi bat hemendik ere, Euskal Herriko gaztetxe guztieri eta egunez egun gazteriarri ilusioa sortzen dioten ekintza orori.

Gure herrian sustraiturik den asanblada bat girenez, Euskal Herriak urte luzeetan bizi duen gatazkaz jabetzen gira eta ozenki aldarrikatzen dugu Euskal Herriko gatazka mingarriak konponbide politiko bat behar duela. Zentzu hortan, herri hunek beste herri guztiek bezala bakearen eskubidea duen heinean, gure ostatu gainean ezarri ditugun

ZIZPA GAZTETXEA

euskal preso politikoaren etxeratzea aldarrikatzen dugu, gainontzeko euskal preso politikoekin batera.

Momentu hau erabili nahi dugu ere, lagundu gaituzten guztiak eskertzeko. Lehenik eta behin 8 urte hauetan gure asanblada indartu duten kide guztiak goraiatu nahi ditugu eta baita gure proiektuan zeharka parte hartu duten guztiak : materiala prestatu digutenak, musikariak, horien lokala utzi diguten elkarte edo pertsonak, hizlari ezberdinak eta orokorrean gure proiektuan sinitsi duten pertsona edo kolektibo oro. Eskerrak ere herriko etxeari, eta lagundu gaituzten zerbitzu tekniko guztieri, erran behar da, gaztetxea lortu baitugu herriko etxearekin akordio batera iritsi eta.

Gaurko egunean, gure zoriontasun guztia isladatzen duen egun bat prestatu dizuegu baina gure proiektuaren zati ttiki bat da, adibidez, azpimarratzen dugu, Otsailaren 1etik goiti astero 11 atelier ezberdin proposatuko ditugu Baionako gizarteari. Orain iritsi da Baionako zerua alaituko duen metxa pizteko garaia, Baionako biztanleriak entzun dezan berri ona : Baionak gaztetxea du ! Zizpa gaztetxea !